

MATEMATIKARAKO KONPETENTZIAREN ITEMEN ADIBIDEAK

MOZORRO LEHIAKETA

Soniaren ikastetxeko 3. eta 4. mailako ikasleek aurtengo inauterietako gai bezala “Munduko kulturak” aukeratu dute eta kultura ezberdinekin lotutako mozorro-jantziak prestatu dituzte.

Aukeratutako kulturak hauek dira: txinatarra, indiarra, eskimala, afrikarra eta azteka.



Hurrengo taulan kultura bakoitza zenbat ikaslek aukeratu duten azaltzen da:

Munduko kulturak	Ikasle kopurua
Txinatarra	50
Indiarra	10
Eskimala	25
Afrikarra	8
Azteka	7

01





Kultura eskimala 25 ikaslek aukeratu dute.

Zein kultura aukeratu dute ikasle kopuru horren bikoitza?

- A. Indiarra.
- B. Txinatarra.
- C. Azteca.
- D. Afrikarra.

02

Begiratu grafikoei:



Zein grafikotan azaltzen da zehazki ikasleen aukera?

- A. A grafikoan.
- B. B grafikoan.
- C. C grafikoan.
- D. D grafikoan.